AITZINA **Editorea:** Fermin Munarriz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Aholkularia:** Iñaki Egaña. **Diseinatzailea:** Juan Luis Napal.
**Helbidea:** Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. **Tlfnoa.** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@teleline.es

## NORANTZA

**PELLO DUHALT**
MATTIN MEGADENDAKO ZUZENDARIA

# «Euskal kulturari gune handi bat irekitzen diogu»

SARL Elkarlanean elkartearen eskutik, Baionako eta inguruko biztanleek kultur denda berria dute aukeran. Megadendak euskal kultura zein beste herrialdeetakoa sustatzeko gunea eskaintzen du.

AMAIA MUNDIÑANO

*Duela astebete ireki zen* Baionako Saint Andre auzoan Mattin Megadenda berria. Honi esker, bertako zein inguruko herrietako biztanleek berrogei mila liburu inguru, hamazazpi mila disko baino gehiago, bideoak, *opariak eta beste hainbat produktu* erosteko parada izango dute. Dena den, bertako zuzendariak azaldu digunez, denda baino gehiago da Mattin Megadenda.

**Mattin Megadenda ireki berri duzue. Zein helburuarekin egin duzue?**

Iparraldean, euskal kulturarentzat bereziki, beharrezkoa zen halako gune bat, zeren eta orain arte euskal kultura atzematen zen denda gutxitan, berritasunak atzematen ziren bereziki, eta berauek, denda txikietan. Dena den, denda berri hau ireki aurretik, Baionan denda txiki bat genuen. Argi ikusten zen, ordea, euskal kultura zoko batean egoten zela, pixka bat baztertuta eta gure asmoa zen denda handi bat irekitzea, non euskal kultura beste kulturekin batera eta maila berean agertuko zen. Horregatik uste dugu bai euskal kulturarentzat bai beste kulturentzat ona dela holako gune bat irekitzea eta hori gune anizduna izatea. Gainera, gune hau estrategia orokor edo nazio*nal batean sartzen da,* Hego Euskal Herrian dauden gainontzeko liburu dendekin batera.

**Zeintzuk dira denda erraldoi honek eskaintzen dituen zerbitzuak?**

Denetarik aurki dezake hona hurbiltzen denak: liburuak, diskoak, bideoak, opariak eta beste hainbat produktu. Eskaintza zabalena osatzen duten arloak literatu*ra eta idazkiak dira. Horrela,* euskal kultura oinarri duten liburuak bederatzi mila inguru dira. Dena den, badira puntu azkar batzuk: umeendako erreferentzia pila bat dugu, zoko bat egin dugu haientzat. Puntu azkarrak dira, halaber, *ofizialentzat eta unibertsitateko* ikasleentzako liburuak, frantses literatura, komikiak... denetarik atzematen ahal da dendan, baina saiatzen gara sail batzuetan erreferentzia asko izatera.


ANTONIO DI BELLONIO

**Dena den, Mattin Megadenda ez da denda soila.**

Ez, Megadenda denda baino gehiago da. Kukuxumusu modajantzi markak bere salgunea du Mattinen. Gainera, liburuak, diskoak eta abar aurkezteko *gunea* ere baliatuko dugu, idazleak eta kantariak gonbidatuz eta debateak antolatuz, baita erakusketak egin*ez* ere. Beraz, Mattin Megadenda ez da bakarrik denda, baizik eta kultur gune bat, euskal kultura be*reziki baina baita beste herrialdee*tako kultura sustatzeko gune zabala.

**Zer ekartzen die euskal kulturari, Iparraldeari eta, oro har, Euskal Herriari gune honek?**

Erran dudan bezala, euskal kulturari denda eta, bide batez, gune handi bat irekitzen diogu, denei irekia eta denei euskal kultura badela erakutsiko dietena. Informazioaren ondorio gisa, jende gehiagok ikusiko eta erosiko du euskal kultura, ezagutuko ditu gure herria eta gure kultura. Hori Ipar Euskal Herrian biziki garrantzitsua da. Gainera, gure seinalitika edo errotulua bi hizkuntzetan da eta hori ez da anitzetan ikusten Ipar Euskal Herrian. Bestalde, Euskal Herriarentzat eta euskal kulturarentzat orokorki, iruditzen zait agerikoa dela, euskal kultura Iparraldean azkartzen bada, Euskal Herri osoan azkartzen dela. Nik espero dut jendeak, gure kultura ezagutuz, Hego Euskal Herria hobeki ezagutuko duela. Mementoz bada muga bat eta Iparraldean jende askok ez dute sobera ezagutzen Hego Euskal Herria eta, beharbada, gure liburuak ikusiz, gehiago ezagutzeko aukera izango dute.

---

**ZIRTOKA**



TXILLARDEGI

## Eskuin berria

*Aste honetantxe, irailaren 2 eta* 3an, Grassen bilduko da Chevènement dimititu berriaren Alderdi Berriaren Kongresoa. *"Mouvement des Citoyens"* deritzo (eta siglaz M.D.C.); eta benetako «errepublikarrak» elkartzekotan sortu du.

Hitzen atzean zer dagoen ez da oraindik garbi ikusten; erregezale ez diren guztiak baitira, nola hala, errepublikazale.

Baina jarri dituen zedarri batzuk adierazgarriak dira oso: Chevènement-ek Corsica-ren arazoarengatik aurkeztu du dimisioa. Chevènementek Frantzia Batua eta Zatikaezina nahi du edozeren gainetik. Hori dela-ta, Pasqua erdi-fazista dauka alboan, eta gaullista mordo bat.

Euskal Departamenduari buruz ere, osoki irmo agertua da: «Inola ere ez. Europaren balkanizazioaren kontra nago».

Eta ez dago bakarrik. Ez horixe! Frantses asko eta asko agertzen da gaur guztiz kezkaturik: *«cette émergence lamentable de l'ethnonationalisme»*. Eta bat egin du buruz eta bihotzez Mayor Oreja eta Aznar-ekin. Noski!

Baina bere mogimendu berrian «marxista kritiko» asko dago, «trotsko» pila bat («trotsko-ohiak» esango dugu?), «ezkerreko sozialista iraultzaile» andana bat, Motchane, Sarre, Débray, Sami Nair, ezker muturrean ibilitako jendea.

*«Dans les années 60 je croyais à la Révolution»* aitortzen dute. Orain Estatuan sinesten dute, «hiritarren Estatuan». Hitzez hitz hori.

Zertan «aldatu» dira luxuzko txaketero horiek? (eta gure inguruko kideak).

Edo-ta, hobeki, zertan «aldatu» *dira* (aldatu baldin badira!). Eta Estatu-aren defentsa gupidagabe eta «modernoa» eskuinaren eskuinetik hobeki egin daitekeela pentsatzera, nola iritsi dira? Bitxia baita, itxuraz.

---

## AITZINDARIAK

